



Giza ezagutzari buruzko ikerketa, David Hume

Itzultzaileak: Xabier Amuriza // Alberto Gabikagogeaskoa

Liburu honetaz esateko handirik ez dudala aitortu behar dut, pentsalari fin-finek bakarrik uler dezaketen pentsamendua nire ahalmenetik at baitago (ez naiz –zoritxarrez– pentsalari hauta horietako bat).

Nolanahi ere, mota horretako alimaleko pentsamenduen ildoari jarraitzea eta horren isla sikiera ulertzen saiatzeko ahalegina egitea “atsegina” gertatu izan zait beti, nahiz eta azkenean amaitu arreta handiagoa jartzen eskrituraren plazer

estetikoari testuak helarazi nahi duen mezuari baino, horrelako tratatu filosofikoen kasuan erabat logikoa dena, testu horiek ulertzeko orduan ditudan ageriko mugak kontuan hartuta, niri dagokidan bezainbatean.

Hala eta guztiz ere, beti uler daiteke “zerbait”, irakurle bakoitzaren esferatik eta ikuspegi errisoriotik bada ere. Horregatik, liburu hauek planteatzen dizkiguten zailtasunei aurre egitera ez nioke inoiz irakurleak animatzeari utziko, eta batez ere filosofia klasikoko testuen kasuan (klasikotasuna ulertuz zentzu zabalean, hasi eta XVIII. menderaino, gutxienez). Izan ere, beti topatu ditzakegu “pitzadurak”, zeinetatik labain gaitzkeen, gauzak gure modura interpretatzeko besterik ez balitz ere, edota pentsamendu horretan gure burua “flotatzan” uzteko, itsasoan xederik gabe bere kasa dabilen egur-pusketaren bat bagina bezala, baina hor, itsasoan beti, eta ez lehorrean.

Bestalde, liburuan hiru atal antzeman ahal izan ditut, bata oso zaila, oso trinkoa, ia-ia kirikino baten antzekoa; gero, badator beste atal bat, Elizak praktikatzen zuen pentsamendu “bakarrarekiko” aski kritikoa berau (noski, garai hartan kontuz ibili beharra zegoen, zeren Hume 1771. urtean jaio arren, eta Erdi-Aroa urrun bazegoen ere, Eliza oso ahaltsua baitzen artean...); eta azkenik, hirugarren atala, berriro ere pentsamendu antiklerikala nagusi duena, nahiz eta gotorturiko pentsamendu batean azalduta egon, zeinagatik oso zaila baita hariari jarraitzea.

Hori dela eta, nire buruari galde egin diot ez ote zen “kezko gortina” bat izango, Hume erabiltzen zuena bere pentsamenduak sorraraz zezakeen erreakziotik bere burua babesteko, ezohikoagatik ia jaizkozkotzat jo zitekeen bere adimenean nolabaiteko babesa bilatuz, Elizaren aldetik etor zitezkeen erreakzioak eta erasoak galdiarazi nahian.

Euskarari dagokionez, hau da, itzulpenari dagokionez, une batez barru-barruan sartu naiz su eta gar testuen barruan, eta idatziz jasotzea erreprimitu ezin izan ditudan hainbat “lore-eder” topatu ditut han-hemen sakabanatuta. Ez dakit zergatik baina aldika-aldika, hain sen handikoa iruditu zaidan estilo horren atzean, Gabikagogeaskoa

baino gehiago, Xabier Amuriza zegokeela iruditu zait, itzultzeaz gain, jostatu ere egiten baita itzulpenarekin, itzultzetik (berr)idaztera igaroz. Une bat baino ez dit iraun, edo niri behintzat hala iruditu zait, eta "begitazio"ren bat ez ote zen pentsatu dut, pentsatu ere; edo, akaso, ez naiz gauza izan hurrengo orrietan testuak "disekzionatzen" jarraitzeko...? huts egin al dit horrelakoetan erabili ohi dudan ahalmen handiko mikroskopiaok...?

Nolanahi ere, hementxe dituzue esaldi edo hizkuntza-baliabide horietako zenbaitzuk, deigarriak iruditu zaizkidanak eta, bestalde, euskal gramatikaren ondaretzat jo beharrekoak:

- Eta ezein esperientziak ez luke ezertarako balioko, gogamenak denik zehazkien hausnartu badu ere¹.
- [...] nahiz eta euren eragiketan oztoporik topatu ez².
- Itxurazko irregulartasun hau eta guzti ere [...] ³
- [...] ezen ez baita giza ekintzarik bere baitan guztiz osoa denik.
- Gai honetaz ere filosofoek ez dute herriarenaz beste iritzirik izan.
- [...] ihardun espekulatibo gutxi dago hori funtsezko ez zaienik.
- Maiz pentsatu dut [...] ⁴
- Astin bezate lehenbizi auzi errazago bat⁵.
- Ez dago arrazoiketa-metodo arruntagorik, eta hala ere gaitzesgarriago denik, [...] errefusatu nahi izatea baino⁶.
- Guztiz baztergarriak dira, beraz, honelako topikoak, egia bilatzen inola ere lagundu ez eta antagonista dugun pertsona gorrotagarri egiteko baino ez direnak⁷.
- Horiek horrela, unibertsalki onartu izan da⁸.
- Eta inor ez da inoiz ausartu ukatzera giza ekintzei buruzko inferentziak atera ditzakegunik⁹.
- [...] direnak direla ondorioak¹⁰.
- sorburutiko kausatik hasi eta gizakume ororen nahizate bakoitz guztietara heltzen dena¹¹.

¹ "ahalik eta" erabili barik, oso jatorra.

² "topatu ez" jatorra, "ez topatu" arruntagoaren orde.

³ "hala eta guztiz ere" erabili ohi dugu beti, baina "hau eta guzti ere" gauzak urrats bat aurrerago eramatea da. Kasu xumea dela dirudi, baina nik horren atzean euskaldun baten aparteko sena dakusat.

⁴ Ikusten denez, beti ez da beharrezkoa "izan" tartekatzea, hau da, "maiz pentsatu izan dut..."

⁵ "bezate" eta antzeko aginterak galtze-bidean ditugu, subjuntiboaren gehiegizko erabileraren erruz.

⁶ Horra hor bi partitibo, abiapuntu bera daukatenak eta elkarren jarraian ia, bata bigarrena erlatibozko esaldi batekin lotua. Jeniala.

⁷ "inola ere lagundu ez eta ... baino ez direnak", esaldi perfektua da, benetako laztana zentzumenentzat.

⁸ Ez dakit zergatik baina singularreko aldaera ("Hori horrela") nahiko erabilia bada ere, pluralezko formak bakanagoak dira.

⁹ "inferentziak" pluralean agertzea txalogarria da guztiz, partitiboak sortzeko araua zorrotzegi aplikatzen dugunontzat lezio polita. Horrez gain, "eta inor ez da inoiz ausartu ukatzera" esaldi-ordena ere opari hutsa da belarriarentzat.

¹⁰ Horra hor esaldi klixer eder bat.

¹¹ "hasi eta... buka" moduko esaldiak egituratzeak euskaldun guztien esku ez dagoen maisutasun bat eskatzen dute.

- Zein ote arrazoia?¹²
- Zergatik ote?¹³
- [...] metxa piztu duena ere ondorio guztien erantzule den moduan [...], halaxe, [...] izango da beste kausa guztien eragile¹⁴.
- [...] gizakumea den bezalako izaki hain mugatu baten kasuan [...]
- Baina ikuspuntu bata zein bestea absurdoak izanik¹⁵.
- Hezueriaren oinaze bizien pean dagoena baretu baino sumindu gehiago egingo duzu¹⁶.
- Ikuspegi orokor hauek bai ase dezaketela¹⁷ [...]
- [...] eta sentimenduok ezin azpira edo alda ditzake dena delako ezein teoria edo espekulazio filosofikok¹⁸
- arazoak ditugu hauek filosofiaren ahalaz handikoak orain arteino¹⁹
- Eragozpen nahikoa aurkituko baitu bertan [...] hondagabeko itsasoetan must egiten ibili barik²⁰
- [...] bistakoa dirudi animaliek ere, gizakumeek bezala, esperientziatik ikasten dutela gauza asko²¹

¹² aditza janda, bai jauna.

¹³ Berdin. Oso jatorra.

¹⁴ Hona hemen esaldi-eredu bat mota horretako esaldiak osatzeko denontzat erabilgarria datekeena.

¹⁵ Ez dakit horrelako kasuetan mugagabea erabiltzea (“baina ikuspuntu bat zein beste absurdoak izanik”) zilegi ote den, baina badakit batzuetan zalantza hori pizten zaigula.

¹⁶ Esaldi barruko ordena zeinen malgua izan daitekeen...

¹⁷ Badago halako mito bat, “bai ... -ela” erabat gaitzesten duena. Baina benetako ala gezurrezko mitoa al da?

¹⁸ Ole!

¹⁹ “-aren ahalaz handiko(ak). Hau gramatikako baliabidetzat (edo “herri-ondareztat”) jo daiteke.

²⁰ Bizkaitarrek parekorik ez daukate “barik” horren erabilera jatorrean (ez da soilik “barik = gabe”, zerbait gehiago baizik: barik = sin necesidad de).

²¹ “gizakumeek bezala”, pluralean alegia, aurreko kasuari segika. Hemen askotan singularraren tentazio okerra azaldu ohi da eta horregatik jaso dut hemen. Horrez gain, esaldiaren jatorria indartuta aterata da “ikasten dutela gauza asko” horrekin, hots, aditza singularrean jarrita (“ikasten dituztela gauza asko”ren ordeztu).